

UZTARRIA



MALEN AMENABAR

KONTATZEN DUTEN IRUDIAK

INNOVA
AZPEITIA

KORTZ KLINIKAK



Jose Artetxe 5 • 943-025955

MILAR LARRAMENDI

Etzetresna elektrikoak



ETORRI DENDARA,
EGIN 20 EUROKO
EROSKETA
ETA IRABAZI



Spotify
Premium
ZERBITZUA
DOAN 3 HILABETEZ!

UDA BEREZIA

Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • www.milar.eus



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak
etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



San Juan Auzoa, 16 • AZKOITIA • ☎ 943-85 21 10 • www.biyona.net



UZTARRIA 240

2021EKO UZTAILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ALEX BERASATEGI



Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|---|
| 5 | Iritzia Ihintza Elustondo,
<i>Joan-etorriak.</i> | 26 | Erretratua Aitor Zubizarreta
saskibaloï jokalaria. |
| 6 | Zu zeu Ohiana Goenaga,
Lapurdi arraun elkarteko patroia. | 30 | Plazan bazan |
| 8 | Nire leihotik Jon Olaizola,
<i>Udak dakarrena.</i> | 33 | Iritzia Oier Etxeberria,
<i>Kale edo bale.</i> |
| 10 | Iritziak Irati Aranguren, <i>Dolua;</i>
Hiromi Yoshida, <i>Alde ona.</i> | 34 | Bestaldetik Jagoba Labaka. |
| 12 | Elkarrizketa Malen Amenabar
sortzailea. | 39 | Iritzia Paola Moto, <i>Despedidak.</i> |
| 18 | Elkarrizketa Patxi Azpillaga
ikus-entzunezkoetan aditua. | 40 | Klik! Sanagustin kulturguneak
10 urte. |
| 25 | Lehiaketa | 45 | Iritzi grafikoa Itziar Aranguren. |
| | | 46 | Iritziak Janire Alkorta, <i>Altza(d)irua;</i>
Felipe Murillo, <i>Eskerrik asko!</i> |

UZTARRIA



Argitaratzailea
Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-15 03 58
uztarrria@uztarrria.eus
www.uztarrria.eus

Zuzendaria
Julene Frantzesena
Erredaktoreburua:
Ihintza Elustondo
Erredaktore taldea
Julene Frantzesena
Mailo Oiarzabal
Maialen Etxaniz
Ihintza Elustondo

Diseinu arduraduna
Iñaki Martinez Albizu
Publizitate arduraduna
Anjel Sarasua
Zenbaki honetako kolaboratzaileak:
Jon Olaizola
Irati Aranguren
Hiromi Yoshida

Itziar Aranguren
Nagore Aizbitarte
Olatz Alkorta
Oier Etxeberria
Paola Moto
Janire Alkorta
Felipe Murillo
Alex Berasategi

Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-860/2000
ISSN: 1576-7337
Tirada: 2500 ale





ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

EGUZKI
belardenda
dietetika
kosmetika naturala



Itxaso Nagusia 67 943-50 34 47 **AZKOITIA**
Urbilatu 9 bis 943-15 00 23 **AZPEITIA**



Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Telefonoa: 943 81 50 08
Faxa: 943 15 03 62





Aiortza Autoak
Behar duzun konfiantzazko salteerari!

Marka guztietako
ibilgailuen konponketak

943-81 19 15
AZPEITIA
aiortza@aiortzaautoak.com





EUROTALLER MULTIMARKA ZERBITZUA

IKA
argi lanak s.l.

Instalakuntza Elektrikoak
Urrut: 618 96 49 95 / Jan: 649 12 02 71
ikaargilanak@gmail.com www.ikasistemak.com
20730 AZPEITIA



Analakuntza
libros
lehenak
kontak

Gestioi lanak
Finan administratibo
Gestio inmobiliario

Telefonoa: 943 157 329 Faxa: 943 157 329
Laparrak: 48 1 100 100 100 100 100 100

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behe 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81



Ekain
ALBARTARI KLINIKA

Euskal Herria Kalea, 34
20730 **AZPEITIA**
Tel.: 943-15 16 40
Larrialdiak: **688 69 29 51**



Marrazkia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00

Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30

Talla 18:30 - 20:00

Jose Artetxe kalea, 3
943 81 28 08
www.adiadina.com
Matrikula urte osan zabalik

IRENE ALTUNA
ORADENIA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943-81 51 87
www.ikunaderria.com



ERLOJU KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12



**JARRI HEMEN
ZURE IRAGARKIA!**

Joan-etorriak



IHINTZA ELUSTONDO

Armairuak ireki eta zure arropa ikustea. Usaintzea. Zuk zapaldutako lur bera oinen azpian sentitzea. Zuk garbitzen zenituen apal berberei hautsak kentzea, zuk erabiltzen zenituen ontziak jasotzea. Arrautza bat zuk irakatsi bezala frijitzea. Zuk egiten zenuen toki berean arropak eskegitzea. Zu etzaten zinen sofa berean esertzea. Komunak zuk esanda bezala garbitzea. Loreak ureztatzea.

Zure logelan lo egitea.

Zuk gordetako argazkiak begiratzea. Zuk brodatutako izarak usaintzea. Zuk jositako arropa kaxoian tolestuta ikustea. Zuk gerorako jaso zenituen gauzak oharkabean aurkitzea. Guretzako zenbat gauza gorde zenituen konturatzea. Zure falta sumatzen dudala ohartzea.

Zure omenez, puskatu gabeko galtzak janztea.

Loredun gona sanpedroetarako gordetzea.

Balkoira irten eta zuk begiratzen zenituen gauzak begiratzea. Kanean jendea ikustea. Zuhaitz handi hori begien aurrean izatea. Zure lagunak, ezagunak, pasatzen ikustea. Kanean dabilzanek zutaz galdetzea. Zuk egiten zenuen *pan de plata* aipatzea. *Pan de plata* bat zer den ez dakidala konturatzea.

Zure gertukoek maite zintuztela ohartzea.

Eguna joan eguna etorri, zutaz oroitzea. Gehiago ez zaitudala ikusiko onartzea.

Zuk behin emandakotik sortu naizela jabetzea. Zuri esker naizela ospatzea.

Zugatik topa egitea.

Zuk ereindako uzta begien aurrean ikustea.

Udaberri bat sortu duzula konturatzea.

Sabel bat hazten eta hazten ari dela ohartzea. Hari begiratzea, ukitzea. Belarria jartzea, zerbait entzuten ote den egiaztatzea. Han barruan lo gozoan dagoenaren aurpegia nolakoa izango den imajinatzea. Noren antza izango ote duen galdetzea.

Haren ondoan etzateko gogoa sentitzea.

Zerrenda guztiak erreparasatu eta harentzako izenik politena aukeratzea.

Oraindik munduratu ez den izaki bat maitatzea.

Bizitza ospatzea.

Sehaska, haur kotxea, pijama, arropak; dena prest izatea.

Logela bat hustea, beste bat betetzeko prestatzea.

Zer ote den bizitza, batzuk joatea, besteak etortzea. ■■■

**ZUK EREINDAKO UZTA
BEGIEN AURREAN
IKUSTEA. UDABERRI
BAT SORTU DUZULA
KONTURATZEA**

Ohiana Goenaga: "Ederra da uraren gainean zoazela sentitzea"

TESTUA IHINTZA ELUSTONDO

ARGAZKIA XABIER GOIENETXEA UNSUAIN

Lapurdi arraun elkarteko *Xubero* traineruko patroia da Ohiana Goenaga (Azpeitia, 1986). 2014an hasi zen arraunean, eta hainbat talde igaro ditu: Oiartzungo Itsaslapurrak, San Juan, Hernani eta Zumaia. 2020an geldirik egon zen ebakuntza bat tarteko, eta aurrean itzuli da uretara.

Nolatan iritsi zara Lapurdiko patroizatera?

Hernaniko taldean hasi nuen aurtengo sasoi, negu partean. Bateletako liga talde horrekin jokatu nuen, baina udara begira, Lapurdin arraunlariak behar zituztela jakin genuen. Probatze aldera, haiekin entrenatzen hasi ginen, eta ondoren, Hernaniko nire entrenatzaileari Lapurdiko entrenatzaile izatea eskaini zioten. Patroia falta genuen, eta hark proposatu zidan ardura hori hartzea.

Zer da garrantzitsua patroizateko?

Batez ere, gidaritza hartzea. Bitartekari lana egin behar duzu entrenatzailearen eta arraunlarien artean. Arraunlariak zuri egiten dizute kasu, eta ardura oso handia da hori. Dena den, arraunlariak oso ondo hartu zuten ni patroizateko erabakia, eta horrek asko laguntzen du. Nigan sinesten dutela adierazten didate, eta horrek konfiantza ematen dit.

ETE ligan ariko zarete denboraldi honetan. Zer helburu dituzue sasoiari begira?

Lapurdi oso talde xumea da, beti azken postuetan ibili izan da, baina hortxe jarraitzen du, xumetasun horretan. Taldea osatzeko, arraunlari berri asko joan gara Lapurdira; Hernanitik hiru eta Zarauztik bost. Talde berria dela jakitun izanda, entrenatzaileak helburu bat jarri digu: bigarren tandan pixka bat borrokatzea. 11 ontzi lehiatuko gara ligan, eta badakigu aurrean ibiltzea ezinezkoa izango dela. Horregatik, azken postuetan ibiliko direnekin lehiatzea da gure asmoa.

Zuloan, burua altza ezinda behintzat ez ibiltzea, ezta?

Hori da. Badakigu sekulako lorpenak egitea ezinezkoa dela, talde berria delako gurea, oraindik egiten ari dena.

Batzuk Lapurdikoak, besteak Gipuzkoakoak... nahasketa polita izango duzue taldean.

Hizkera oso ezberdinak ditugu: badago gaztelaniaz bakarrik dakien baten bat, besteren batzuek frantsesez hitz egiten dute, baina gehienbat euskaraz egiten dugu; euskaraz oso ondo konpontzen gara. Oso polita da sortzen den nahasketa. Ipar Euskal Herria hortxe ondoan dugu, baina ez gara asko joaten hara, eta beraiek horretaz kezkatzen dira; harreman hori falta dela dote. Alde horretatik, oso aberasgarria izaten ari da esperientzia.

28 urterekin hasi zinen arraunean. Nahiko berandu, ezta?

Beti buruan eduki izan dudana gauza bat da, baina askotan aukerak sortzea izaten da gakoa, parean tokatzea. Oiartzunen bizi izan nintzenez, gertutasuna tarteko hasi nintzen arraunean.

Probatu eta ezin utzi?

Bai, arrauna horrelakoa da; segituan uzten duzu, edo erabat harrapatzen zaitu.

Zergatik gustatzen zaizu hainbeste?

Taldeko kirola delako. Norbanakoak egindakoak ez du hainbeste balio arraunean, denen arteko batuketa da garrantzitsua. Norbait oso ona izatea alfer-alferrikakoa da kohesiorik ez baldin badago. Taldeko giro hori asko gustatzen zait, momentu onetan eta txarretan bat eginda egote hori. Eta uraren gainean zoazela sentitzea ederra da; hori da harrapatzen zaituena.

Aurrera begira, ametsik? Kontxa, agian?

Oso gutxi lortzen dute hori, oso zaila da. Lan asko egiteaz gain, dena oso parean tokatu behar zaizu. Nik nahi dudana da egiten ari garena ondo egitea eta horrekin gozatzea. Orain taldea ondo eramatea da nire ardura.

Patroizateak beste izaera bat erakustea eskatuko du, ezta?

Traineru barruan zoazenean ez dago lagunik, egurra ematea tokatzen da. Niri estutasun pixka bat ematen dit arraunlariak gogor egiteak, baina beraiek eskatzen dizute exijitzeko. Egia esan, nahiko ondo moldatu naiz jarrerara aldatetara. ■■■



Udak dakarrena



ARGAZKIA ETA TESTUA: JON OLAIZOLA

Iritsi da uda, eta jada hasi dira eguzki izpiak mendi gailurrak argitzen, haitz zaharrak berotzen, jendearen alaitasuna berpizten.

Bada ordua, urte beltz honen ondoren, gora begiratuz argi zuria ikusteko. Lasaitasuna eta deskonexio hitzak norberaren hiztegira bueltatzeko, egitekoak ginen eta bertan behera geratu zaizkigun plan guztiak berreskuratzeko, momentu baten bada ere amets gaizto hau ahazteko.

Pandemia honetan tokatu eta ezarri zaigun errepresio eta askatasun eza ahaztu gabe, uda honetan, eguneroko bizitzan ohartu gabe ihes egiten diguten xehetasun txikiei inoiz baino garrantzi gehiago emango diegulakoan nago; eguzki izpi beroei, haize bolada zakarrei, udako ekaitzen euri tanta lodiei, itsas olatuen soinuei...

Iritsi da uda, COVID garaian. ■■■





Dolua

Euskaldunok badugu isil fama; hitz gutxikoak eta hotzak garela diote. Hala ote? Haurrak gardenak dira, sentitzen dutena esaten dute, eta esaten ez dutenek gorputzaren bidez adieraziko dute. Urteak aurrera, ordea, galdu egin ohi dugu garbitasun hori; mugak jartzen dizkiogu gure sentitzeko zein adierazteko askatasunari. Gerlariaren armadura janzten dugu, eta azaletik burdinera utzitako bi zentimetroko distantzia hori bilakatzen da gura arnasleku bakarra.

Dolua da arnasleku horretan bizi den sentimenduetako bat. Zenbat hitz egin da doluaz? Noiz? Zergatik? Gure osasunari komeni baino gutxiagotan hitz egin da; hori hala, kostatu egiten da bai azaleratzen, bai kudeatzen. Baina zer dela

esango zenuke dolua? Esan liteke inguruko norbait hiltzean sortzen den sentimendu tristea dela. Nire aburuz, beste hamaika kasutan ere nabari genezake, hala nola norbait atzerrira bizitzera joandakoan, langabezian geratutakoan eta abar.

Duela zenbait urte, Zugarramurdin izan nintzen udaleku itxietan begirale. Bizipen sakonak sortzen dira halako egonaldietan: ezagutzen ez dituzun haurrekin dozena egun jarraian egotean gertuko

harremanak sortzen dira. Arduradun rola duzula badakizu, bai, baina sukaldari zein erizain izateaz gain, bihurrikerietako kide eta bizitzako konplize senti zintezke. Ondorioz, agurtzeko garaia gogorra izan ohi da. Urte hartan egonaldi oparoa izan nuen arren, dolua zen nire barnean nagusi; sorginen etxe hartan ezagututako pertsonak bizitzan berriro ez ikusteko aukera handia baitzen. Egun hartan erabaki nuen udalekuetan ez nuela haurrekin hain gertuko harremanik sortuko berriro, eta harrezkero, armadura jantzita joan izan naiz. Ez dakit nire buruaren onerako edo kalterako den, baina hala da.

Bada, ikasturtea amaitu berri dugu irakasleok. Zenbat irakaslek agurtu ote dituzte

**EKAITZA PASATU
ARTE ZAIN EGON
ORDEZ, EURI AZPIAN
DANTZA EGITEA DA
HELBURUA**

HAUXE BAI JENEROA!



HAN ETA HEMEN



HIROMI YOSHIDA

Alde ona

Egoera gogor, itogarri honetan jarraitzen dugu, baina beti kexatzen ibili beharrean, saiatu naiz egoera honetan izandako alde onak bilatzen. Eta bat dut gogoan. Hau da, Tokioko hizkuntz akademia batean ere ematen dut euskara, eta eskola horretan, pandemia dela eta, 2020-2021 ikasturtean eskola guztiak *online* ematea erabaki zuten. Pandemiarik ez balitz, erabaki hori ez zuketean hartuko.

Matrikula ireki zutenean, txundituta geratu ziren akademiako bulegariak, berehala eta inoiz baino jende gehiagok eman zuelako izena. Aurrez aurreko klaseetara Tokion eta inguruan bizi direnak besterik ezin daitezke joan, baina klaseak *online* emanez gero, mundu osoko jendeak parte har dezake saioetan.

Ohikoak ez diren hizkuntzak ikasteko aukera oso gutxi izaten da herri txikietan, eta hori horrela, *online* klaseen eskaintza berri pozgarria izango zen hainbatentzako. Internet sistemak urrutitik ekarri dizkigu ikasleak klaseetara. Sistema hori ez balego, euskara klasera joatea ezinezkoa izango zen haientzako. Hori da COVID-19ak eragindako pandemia honen alde on gutxi batzuetako bat, klaseak aurrez aurre ematea mila aldiz nahiago dudan arren. ■

azken urteetan beren magalean izan dituzten ikasleak? Baliteke, beraz, maisu-maistra horiek ere doluaz zipriztinduta izatea egun hauetan. Hainbat bizipen, istorio eta maitasun elkarri eman eta jaso ondoren, agur esatea gogorra da. Umoretik bizi daiteke agur hori, aje emozionala ere hor legoke. Baina aje emozionaletik dolura ez ote dago uste baino salto txikiagoa?

Eta ni ere, urtero legez, hemen nago dolu egunak igarotzen. Datorren urtean nire ondoan egongo ez diren ikasleak behatzen. Ez da samurra urtero etapa honetatik igarotzea. Irakasleon bizitza erraza dela diote batzuek, opor luzeegiak ditugula besteek. Letra horiek ahoskatu dituen gustura jarriko nuke irakasle baten azalean, eta probatu

ondoren zabal dezala ahoa berriro. Opor luzeegiak ditudala esaten didan horri, berriz, armadurarik ez banu, gustuz esango nioke ez ditudala oporrak, langabeziara bidaltzen nautela udan. Eta, noski, azken horrek pisua gehitzen dio doluari.

Aurten zenbait lankiderekin partekatu dut nire dolua, erantzun enpatikoak jaso ditut eta errazagoa izan da taldean tristura hori kudeatzea. Dena den, badakit nire dolua ez dela beltza, marroi ilunez margotuko nuke. Egoeraren arabera, norberak daki ondoen zer kolore eta opakutasun duen bere doluak. Aipatuak aipatu, gogoratu, orde, ekaitzik gabe ez dagoela ostadarrik, eta ekaitza pasatu arte zain egon orde, euri azpian dantza egitea dela helburua. ■



"Euskarazko ikus-entzunezkoen sistema diruz lagundu behar da"

PATXI AZPILLAGA IKUS-ENTZUNEZKOETAN ADITUA

EHUko irakasle lanetan urteak egin ditu Patxi Azpillagak, baita Nor ikerketa taldean ere. Euskal Herriko ikus-entzunezko industria du lan lerro nagusia, eta batez ere, horren bueltan hitz egin du, luze.

Testua: **Julene Frantzesena**. Argazkiak: **Julene Frantzesena eta utzitakoak**.

Ekonomiaren Zientzietan lizentziatua da Patxi Azpillaga (Azpeitia, 1959), eta 1987tik oraintsu arte Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Ikus-entzunezko Komunikazioko eta Publizitateko sailean irakaslea izan da. Orain, alde batera utzia du irakasle lana, sindikalgintzan murgildu delako. Nor ikerketa taldeko kidea ere bada, eta batez ere, Euskal Herriko ikus-entzunezko industria –Euskal Herriko zinema eta telebista– eta horien ekonomia eta arauketa izan ditu lan lerro nagusiak.

Nor ikerketa taldeko kidea zara. Zer da Nor?

Unibertsitateko egitura bat da, ikerketa talde bat, eta batu gintuen arrazoia euskal komunikazioa eta kultura izan ziren. Nor taldearen abiaburua 2000. urtean UEUK argitaratu zuen *Hedabideak eta Euskal Herria* liburua izan zen. Ikerketa hartan Josu Amezagak, Edorta Aranak, Josi Basterretxeak, Ander Iturriotzek eta beste irakasle batzuek parte hartu genuen, eta gerora, Josuk, Edortak eta hirurok eman genion segida gure arteko lankidetzari; Bea Narbaizarekin batera tokiko telebisten eta euskal hedabideen gaineko zenbait ikerketa egin genituen. Gero, talde kontsolidatu gisa hasi ginen funtzionatzen, Nor izenpean, eta pixkanaka, talde horretara ikerlari eta ikerketa lerro berriak batzen hasi ginen: zinema, transmedia,

Hekimenekin batera garatu genuen Behategiaren proiektua, gazteen ikus-entzunezkoen kontsumo panela, euskara marka gisara... Horietako batzuk doktore tesi modura landu dira, eta beste batzuk, ikerketa proiektu berezi gisa. Taldearen motorra, nolanahi ere, Josu eta Edorta dira eta izan dira beti.

Urteak eman dituzu irakasle lanetan eta ikerketan.

Orain, berriz, Steilasen zaude liberatuta. Nolatan?

Unibertsitatean lan desberdinak egin behar izaten dira, eta ni beti egon naiz Steilasen. Lan sindikala bigarren mailan izaten nuen beti, baina iritsi zen une bat zeinetan liberatuta zeuden pertsonak utzi egin zuten jarduna eta beharrezkoa zen txanda hartzea. Sindikatuko lana egiten ari naiz orain, nahiz eta ikerkuntzan aritzen naizen, beste maila batean bada ere. Irakaskuntzan ez naiz ari, ordea; horrek pena ematen dit. Gure lanaren zati interesgarri bat da ikasleekin dugun harremana; jende gaztea, berria etortzen da beti, eta oso aberasgarria da. Errelatatetik oso gertu jartzen zaituzte horiek eta asko kuestionatzen zaituzte; horrek mugiarazi egiten zaitu.

Unibertsitatean eskolak ematen hasi zinenetik hona, aldaketarik nabaritu al duzu ikasleen interesei dagokienez?

EHUra iritsi nintzenean, euskarazko komunikazioaren garapenarekin oso inplikaturata zegoen eta maila handia zuen belaunaldi militante



bat egokitu zitzaidan ikasle. Lehen urtean ikasle izan nituen Jon Sarasua, Imanol Murua... Gerora euskal kazetaritzaren abangoardia izan ziren horiek; izan ere, haiek izan ziren *Argia* hartu zutenak eta gero *Egunkaria* sortu zutenak. Nik haiengandik beraiek nigandik baino askoz gehiago ikasi nuen; horretan ez daukat dudarik. Haiekin alderatuta, gaur egungo gazteak oso desberdinak dira. Orduko inplikazioa beste maila batean dago orain, euskarazko komunikazioaren eta kazetaritzaren errealitatea beste bat delako; beraz, ez dago konparaterik. Orain askoz ere modu normalagoan bizitzen dugu errealitate hori, nahiz eta normala ez den. Gazteen interesak eta inplikazioa oso desberdinak dira, asko aldatu dira gauzak. Orain beste molde batzuetan aritzen dira gazteak, eta neurri batean, niri ihes egiten didate horiek: sare sozialak eta... Bizi dut sare sozialen aroa, ikusten dut zer ari den gertatzen, baina oso zahar harrapatu nau. Agian, horregatik ere hasi naiz sindikatu lanean. Izan ere, ikasleekin solasean aritu eta konturatu izan naiz haien errealitate komunikatiboa eta nirea oso desberdinak direla. Zuk erreferentziak egiten dituzu klasean, eta konturatzen zara urruntze handi bat egon dela ikasleen eta zure artean, eta agian, jende gaztea etorri behar da irakasle lanetara, gertuagoko gauzak kontatzera.

Hainbat ikerketa egina zara. Besteak beste, telebista eta Europako hizkuntza gutxituak izan dituzu aztergai. Zer garrantzia dute ikus-entzunezkoek hizkuntza baten biziraupenean?

Edozein gizartetan edo kulturatan klabea da hizkuntza gutxitu batean egotea komunikazioa, euskaraz kasu honetan. Ez da bakarrik telebistan euskarazko jarduna izatea, baizik eta ikus-entzunezko eskaintzan euskarazko aukera egotea. Izan ere, hortik hartzen ditugu hitz egiteko moldeak, erak, eta hortik egiten gara ikusgarri besteentzat. Hemengo ikus-entzunezko politika ETB sortzea izan zen, oso garrantzitsua. Orain, ordea, ikus-entzunezkoek orokorrean hitz egin behar da, telebista horren zati bat baino ez delako. Orain jendeak ikus-entzunezkoak beste modu batzuetan ikusten ditu. Ikus-entzunezkoak klabea dira; izan ere, ikusi dugu izurri garaian eta itxialdian ikus-entzunezkoa izan dela gure kultur kontsumoaren parterik handiena, distantziarekin. **ETBk eta ekoiztetxeek zer rol daukate ikus-entzunezkoen sorkuntzan?**

Gaur egun ikus-entzunezkoen industria nola dagoen ikusita, ezin da pentsatu hemengo

ekoiztetxe batek kanpora begira egin dezakeela lana. Motor eta oinarri indartsu bat behar da, eta hori lortzean joko du, agian, kanpora. Ekoiztetxeek ez diote egoerari buelta emango; motorra finantzaketa da, eta finantzaketa iturria ETB da, edo hala izan da. Ez dugu ahaztu behar euskal zinema, neurri handi batean, ETBri esker egin dela, baina baita Europako araudi bati esker ere. Izan ere, araudi horrek ETB behartzen du ikus-entzunezko ekoizpeneko inbertsioaren %60 euskaraz egitera. Beraz, derrigorra da euskarazko zinema ekoiztea. ETBren ikus-entzunezko politikak iritzi publikoan eta informazio kontuetan jarri du fokua, eta horretan gaztelania gailendu zaio euskarari. Garrantzitsua izan da EAEko iritzi publikoa eratzea, eta euskara baztertu egin da. Uste dut horren kontzientzia alderdi guztietan dagoela, baina hainbeste urtetan euskarazko komunikazioa ez denez landu, orain gabezia edo noraeza nabari daiteke. Pretentsio falta dago instituzioen aldetik.

Hain zuzen ere, ETBk euskararekiko izan duen jarrera behin baino gehiagotan kritikatu da. Zer gertatu da?

Hala da, eta gertatu zena da ETB1i ETB2 gailendu zitzaiola nabarmen. Euskal Telebistak hizkuntza normalizazio eta euskal gizartearen egituraketa zein normalizazio funtzioa baldin bazituen, hizkuntzaren funtzioa bigarren mailan gelditu da. Horregatik gailendu da gaztelania, eta hori urte askotan ordaintzen ari garen gabezia da. Pena da, baina... Uste dut kontzientzia badagoela; euskarazko hedabideek funtzio bat bete dute, presentzia irabazi dute, eta euskal gizartearen eraketa eta egituraketa euskaratik ere egin daitekeela eta egiten dela erakutsi dute. Beraz, ez dira bigarren mailako bezala tratatu behar. Pentsatzen genuen euskararen ezagutza eta erabilera batera etorriko zirela, baina ez da horrela izan, ez erabilerari, ez kultur eta komunikazio kontsumoari dagokionez. Adibide bat jartzearen: ni beti harritu izan naiz Azpeitian euskarazko hedabideen kontsumoa hain urria izatearekin. Beti pentsatu izan dut herritarrek, batez ere, *Berria* irakurriko zutela, baina konturatzen zara ezetz, jendeak *El Diario Vasco* irakurtzen duela, lehen bezalaxe. Ari da nabaritzen aldaketa, baina pixkanaka; denbora behar du horrek. Errealitatea guk nahi genukeena edo uste izan duguna baino konplexuagoa da, eta horretara ere ohitu egin gara: nahi genuen pauso bat berehala gertatzea, baina errealitateak irakatsi digu hori ez datorrela bat gure asmoekin eta nahiekin. Ikasi dugu hasierako



**"EUSKARAZKO ERREFERENTZIA
EDUKI EGIN BEHAR DUTE, BATEZ ERE
UMEEK ETA NERABE-GAZTEEK"**

**"EZ DA SOILIK TELEBISTAREN
TERMINOETAN PENTSATU BEHAR,
IKUS-ENTZUNEZKOEN TERMINO
OROKORRETAN BAIZIK"**

**"AHULA ETA DESEGITURATUA DA
GURE HEDABIDEEN ETA
IKUS-ENTZUNEZKOAREN GAINEKO
MARKO JURIDIKOA"**

asmoak kontrastatu egin behar direla uste genuena baino anitzagoa den errealitate batekin, eta hori ez da gutxi.

Ikus-entzunezkoen plataformak indartsu sartu dira etxeetara, baina horietan hutsunea dago euskarazko edukiei dagokienez.

Bai, hala da, eta oso interesgarria da pantailak euskaraz izatea. Distantziarekin, denborarekin, gauza batekin konturatu gara: telebista oraindik ikus-entzunezkoen kontsumoaren ardatza zenean, belaunaldi batentzat *Dragoi Bola* oso garrantzitsua izan zen. Hura puntako ikus-entzunezko bat zen eta ETBn euskaraz ikus zitekeen. Horrek jartzen zintuen beste edozein kulturaren pare; puntako kultur kontsumoa egiten zen euskaraz. Orain ez dago halako erreferentziazko kultur edukirik, eta hori horrela izanik, ikus-entzunezko politiken ikuspuntuak desberdina izan behar du: euskara ikus-entzunezko eskaintza zabal horren barruan presente nola egin erabaki behar da. Ez da erraza, baina gakoa da euskararen jarraipenerako.

Bestalde, egia da euskal gizarteak aldatu egin dela. Gaur egun, euskal gazteek askotan nahiago izaten dute ikus-entzunezkoak jatorrizko hizkuntzan entzutea eta ikustea, eta horretara ere ohitu egin beharko dugu. Izan ere, euskalduna izanagatik, ez du esan nahi kontsumitzaileak dena euskaraz jaso nahi duenik. Baina euskarazko erreferentzia eduki egin behar dute, batez ere umeek eta nerabegazteek. Katalunian, adibidez, lortu dute katalana zinema aretoetan sartzea, baina hemen egoera oso bestelakoa da. Adibidez, *Frozen 2* ez dakit euskaraz ikus al daitekeen, baina *Frozen 1* euskarara ekarri zuten. Euskarazko eskaintzak gaztelaniazkoarekin batera etorri behar du; izan ere, literatura gertatzen den gisan, gaztelaniazko produktu batek merkatua apurtu badu, eta gero iristen bada euskarazko itzulpena, merkatuaren zati bat galdu du euskarazkoak jada. *Frozenek* gaztelaniaz egiten badu bidea, ez da eraginkorra handik hilabete batzuetara kaleratzea euskarazkoa. Presentzia izan behar du behar den unean, eta horrek legedia izatea eskatzen du. Ikus-entzunezko legerik gabe ez dituzu merkatua eta banatzaileak euskararen presentzia bermatzera behartuko.

Zer garrantzia du ikus-entzunezkoak modu orokorrean lantzeak?

Hutsune nabarmena dago EAEn. Ikus-entzunezko politika egiterakoan, batez ere, ETBri begira egon gara, eta errealitateak aurreratu egin gaitu alde guztietatik. Horregatik, uste dut ikuspuntu aldaketa bat beharrezkoa dela. EH Bilduk egin du Ikus-

entzunezko Kontseilu bat eratzeko lege proposamena, baina Eusko Jaurlaritzak ez du onartu. Hori, adibidez, pauso bat litzateke ikuspegi aldaketa horretan. Izan ere, ez da soilik telebista terminoetan pentsatu behar, ikus-entzunezkoen termino orokorretan baizik, eta hori eztabaidatzeko eta gidatzeko erakunde independente bat izatea oso inportantea iruditzen zait. Horrek eztabaida zabala eta irekia nahiz lan edo politika ildo irekiagoa ekarriko luke.

Eusko Jaurlaritzak baztertu egin du proposamen hori, ordea.

Erabaki oso desegokia iruditu zait. Ez da gaia eztabaidatu ere egin nahi izan, eta proposamena baztertzeko erabili diren argudioek Eusko Jaurlaritzaren aldetik arduragabekeria ere adierazten dute. Esaten ez dute bada Euskadin berezko hedabide ekosistema anitza, plurala eta elebiduna dugula! Hain zuzen ere, kontrakoa dela uste dut, hain da ahula eta desegituratua gure hedabideen eta ikus-entzunezkoaren gaineko marko juridikoa, ezen emaitza sistema erabat desorekatua dela. Sistema hori tarteko, euskarak oso presentzia urria du telebistan, irrati-tan, zinema aretoetan eta eremu digitalean. Sistema hori tarteko, eragile pribatuek ez dute euskararekiko ia betebeharririk, ezta bertako gizartearekiko ere, estatuko kateetara atxikitako irrati-ekin gertatzen den moduan. Sistema horretan, gizarte eragileek, instituzioen utzikariaren aurrean, beti bultzaka eta ekimena hartuz ibili behar izan dute, euskarazko prentsarekin, irrati-telebista lokalekin edota orain ikus-entzunezko plataformekin gertatzen den moduan. Alde horretatik, Ikus-entzunezko Kontseilua aukera bat zen, eta aukera bat da oraindik, gure komunikazio sistemaz beste modu batean pentsatzen hasteko eta ekiteko. Gainera, kontseilu hori gaur dugun instituzionalizazio eta marko juridiko zatikatu eta nahasia baino eraginkorragoa da, eta komunikazioaren gaineko eztabaida alderdikieretatik urrundu eta gobernantza eredu partekatuetara eramatea ahalbidetuko luke.

Europaren badira halako erakundeak, ezta?

Ikus-entzunezkoa ez da telebista bakarrik, askoz ere konplexuagoa da, eta konplexutasun horretaz jarduteko Europa osoan eratu dira halako erakundeak. Europako Batasunak sustatu egin ditu halako ikus-entzunezko egitura independenteak.

Katalunian, Valentzian, Andaluzian... Europa osoan oso hedatuta daude halakoak, eta Espainiako Estatua da ez daukan bakarretakoa,

bakarra ez bada. Espainian erabaki zen ikus-entzunezkoen inguruko ikuskaritza funtzioa ematea erakunde erregulatzailerokor bati; hau da, merkatuen konpetentziaren edo konkurrentziaren gaineko erakundeari. Beste sektore guztiekin batera ikus-entzunezkoa ere tratatzen du, baina ez da, ziurrenik, erabakirik onena. Izan ere, horrela merkatu ikuspuntutik soilik lantzen duzu. Katalunian aspaldi egin zuten ikus-entzunezko kontseilua, eta hainbat urtetan katalanezko hedabideen garapenerako tresna garrantzitsua izan da. Espainian ez dago halako erakunde independenteen tradizioirik, eta noraino da estatua gai halako erakundeen izaera independenteak eratzea eta berak ez kontrolatzea onartzeko? Espainiari ez zaizkio halako erakunde independenteak interesatzen, eta gauza bera gertatzen da EAEn. Baina tradizioak aldatzeko daude, eta hemen, nahiz eta tradizio politiko hori dagoen, uste dut garrantzitsua dela bideak irekitzea, gu ere Europaren tamainakoak edo Europako beste edozein gizarte garatu-modernoren tamainakoak izan gaitezten.

Tokiko telebistez ere hainbat lan egina zara. Zer funtzio dute horiek?

Tokiko telebisten lana egin genueneko panorama –2007an– eta oraingoa oso desberdinak dira. Orduan, enpresa pribatuek-eta interesa zuten telebista lokalen munduan presentzia izateko; Vocento taldeak edo El Paisek, adibidez. Merkatu lokalak merkatua zela zirudien, eta ez zegoen gaur egun ezagutzen dugun telebista pribatuen eta plataformen zabalkundea. Ikusi genuen komunikazio lokala oso garrantzitsua zela tokiko gizarteetan funtzio soziala betetzeko, eta gainera, euskarak gaztelaniari aurrea hartuz gero, eremu horiek euskarak irabazitakoak izango ziratekeen. Eremu horietan sartzea oso zaila zuen gaztelaniak, eta alderantziz, gaztelaniak irabazitako eremuetan oso zaila zuen euskarak. Tokiko eremuak euskararentzat gordetzea eta euskarari begira eremu horiek babestea oso garrantzitsua zen, beraz. Sasoi hartan baimendu edo bultzatu zen euskarazko eskaintza lokala toki guztietan egotea, eta hortik sortu zen Hamaika telebistaren proiektua. Aldi berean, ordea, tokian-tokian, gaztelaniazko telebista lokalak ere eratu ziren, batez ere Bilbon eta Donostian. Gero frogatu zen horientzat merkaturik ez zegoela; gaztelaniazko tokiko telebista gehienek porrot egin dute. Horien sorrerak euskarazkoena ahuldu zuen, hutsik zegoen eremu bat irabaz zitekeen



euskararentzat, eta presentzia garrantzitsua lortu eremu lokaletan. Goienera telebista, adibidez, hor dago egun. Hura babes handiarekin sortu zuten; ez soilik lizentzia aldetik, babes publikoa ere izan baitzuen. Euskaraz ari bagara, babes publikorik gabe oso aukera eta merkatu urriak ditugu, eta babes publikoa dagoenean, funtzionatu egiten dute komunikazio proiektuek. Batzuetan pentsatzen da dena diruz lagunduta dagoela, baina euskarazko ikus-entzunezkoen sistemak hala egon behar du. Hori ez da gabezia bat, bere izaeraren parte da. Dirulaguntza sistema garrantzitsua eta ondo antolatua behar da; garbia, gardena... eta horrek funtzionatu behar du euskarazko komunikazioaren motor bezala. Hori ez da ahulezia, indargunea da. Izan ere, ondo babestuta eta egituratuta, euskarazko komunikazioarena da etorkizuna. Euskarazko komunikazioa diruz lagundua dela? Bai, jakina, eta hala behar du, bestela ez da existituko. Euskarazko hedabideen merkaturia oso hauskorra da, eta babesten ez baduzu, eta gainera, gaztelaniazkoekin lehiatzen jartzen baduzu, galtzeko guztia dauka.

Zer egoeratan dago gaur egun Euskal Herriko ikus-entzunezkoen industria?

Aspaldian ez bezala, ekoizpen dezente eta egonkorra egiten ari dela uste dut, bai zineman,

bai telesailetan. Une ona da, egile berriak sartzen ari dira, eta formatu berriak agertzen ere bai. Hemen, fikzioaz aparte, ez dira asko garatu dokumentalak eta, baina orain dezente ari dira egiten, eta alde horretatik, momentu interesantea da bizitzen ari garena. Betikoa da, ordea, nire sentipena: babes handiagoa behar da, baliabide gehiago, eta sustapena egin kanpora begira. Azken boladan telesailak egin dituzte ETBren ekimenez, hala nola *Hondar ahoak*, *Altsasu* eta *Ihesa*. Orain, Txintxua eta Koldo Almandoz plataforma baterako beste ekoizpen batean ari dira lanean. Zineman, berriz, *Handiaren* ostetik etorri dira, *Akelarre*, *Ane* edo *Oreina*.

Dokumentaletan, berriz, *Dardara*... Moriartiko Goenaga-Garaño-Arregi taldeaz haratago, Maddi Barber, Maider Fernandez, Josu Martinez, Maria Elorza, Maider Oleaga, Iratxe Fresneda, Lara Izagirre, Igor Legarreta, Imanol Rayo eta abar luzea gauza interesgarriak egiten ari da. Ikus-entzunezko mundua irekitzen ari da; lehen Hollywood eta ezer gehiago ez zegoen. Orain, beste aniztasun bat dago pantailetan, ohitzen ari gara beste leku batzuetatik datozen narratibak eta formak ikustera, eta alde horretatik, ematen du merkatu aukera gehiago dagoela edo proiektu txiki eta berezi batzuk egiteko beste aukera batzuk badaudela. ■■■

"Asko gustatzen zait taldean lan egitea eta sortzea"

Azpeitiko erroak ditu eta Azpeitian bizi da gaur egun Malen Amenabar (Larrabetzu, Bizkaia, 1994). Gurasoek bultzatuta ikasi zituen Arte Ederrak, Txakur Gorria sormen taldeko kidea da, eta "zorteduna" dela dio, ilustratzaile profesionala izatea lortu baitu.

Testua: **Mailo Oiarzabal**. Argazkiak: **Alex Berasategi**.

Oposizio prozesu bat amaitu berri duzu. Sortzaileen prekarietateaz zenbat adierazten du horrek?

Neure aldetik hainbat lan egiten ditut; gainera, Txakur Gorrian nago, eta Bertsozale Elkartean diseinatzaile lanetan ere aritzen naiz. Beraz, agian ez naiz prekarietateaz hitz egiteko egokiena, lana dudalako eta ikasi nuen horretan egiten dudalako lan. Egia da 'seguro' jokatzekoa eta badaezpada ateak irekitzekoa izan naizela beti. Iaz, pandemiaren eraginagatik, Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedientean (ABEEE) sartu ginen, Txakur Gorrian ere lan guztiak erori zitzaizkigun... Momentu hartan aukera zegoen hezkuntzako oposizioetan izena emateko, eta hala egin nuen; prozesua hainbeste luzatu denez, oraintxe egin dut azterketa. Nire kasu pertsonalean, ezegonkortasun momentu baten ondorioz egin ditut oposizioak. Egia da gaur egun oso zaila dela sortzaile bezala lan egitea; pandemiaren hasieran ikusi zen zer behar dagoen kultura sortzeko. Egia da zortea izan dudala, baita zortea irabazi eta landu egiten dela ere, baina momentuz, ondo joan zaizkit gauzak.

Ilustrazioa da zure sormen arlo nagusia gaur egun.

Umetatik al dator kizua adierazpide hori jorratzeko gogoala geroago sortu zitzaizun zerbait da?

Asko-asiko zor diet gurasoei. Txikitatik irakatsi didate, lehenik eta behin, lan asko egin behar dela

gauzak lortzeko; eta, bestetik, beti sustatu dute nik sormena lantzeko aukera. Musikan ibili izan naiz txiki-txikitatik, piano ikasketak egin nituen... Marraztu ere, asko marrazten nuen, baina nire buruan ez zegoen profesionalki horretan inoiz aritzeko ideia. Batxilergo garaiko oroitzapen oso txarra gordetzen dut. Bukatu eta gero krisi handi bat izan nuen, eta gurasoek eman zidaten Arte Ederrak ikasteko bultzada. Txikitatik beti esaten zidaten badaezpada ere denetik egiteko, baina nik ez nuen ikusten 'badaezpada ere' hori... Arte Ederrak ikasita, beldur pixka bat ere ematen du etorkizunak. Gurasoak izan ziren galdetu zidatenak: "Malen, zuri benetan zer gustatzen zaizu?". Nire erantzuna "marraztea" izan zen. Gurasoengatik izan ez balitz, momentu hartan asko kostatuko zitzaidakeen aukera hori egitea. Gurasoei zor diet bai oinarria jarri izana eta bai erabakia hartzen lagundu izana.

Zein izan zen jendaurrean aurkeztu edo eman zenuen lehen lana?

Larrabetzuko Hori Bai gaztetxeko komunikazio taldean ibili nintzenean, kartelak-eta egiteko ardura hartu nuen; orduan hasi nintzen kanpora begira lanean. Hasieran, gaztetxearen izenean egindako lanak ziren. Gero, gaztetxean bertan egiten den musika ziklo baterako kartelak egiten hasi nintzen, eta horiek jada neure izenarekin





sinatzen nituen. Horien ondoren etorri ziren Txakur Gorriaren hasieretako lanak.

Nola definituko zenuke zure estiloa? Nolakoak dira zure ilustrazioak, zerbaitek batzen baditu?

Jendeak esaten du identifikagarriak direla nire lanak, eta iruditzen zait hala direla, hasierakoetatik garapen bat ikusten badut ere. Asko gustatzen zait testurekin lan egitea, pastel koloreekin eta, baina batzuetan lan ilunagoak ere egiten ditut. Testura pila bat dauzkat, eta horien konbinazioekin egiten dut lan; collage baten antzera, baina hori baino gehiago da teknika askoren nahasketa. Gaur egun digitalean egiten ditut lan gehienak, ia denak.

Kartelak, liburuetarako ilustrazioak... Zerk betetzen zaitu gehiago? Ba al dago erosoago sentitzen zaren sormen arlo bat?

Karteletan zein ipuinetan, beti saiatzen naiz beste buelta bat ematen. Testu bat ilustratu behar badut, testu hori askotan irakurtzen dut, irakurraldi pila bat egiten ditut, neure interpretazioa sortzeko. Hori da gustatzen zaidana; ilustrazioa egitea baino, pentsatze ariketa hori egitea. Orain, hilabetero talde desberdin bati egiten diot kartelen bat, eta batzuetan ez da erraza izaten ideiak etortzea; orduan, askotan beraien kanta hartu eta neure interpretazioa egiten ahalegintzen naiz. Besteek sortutakoa neurera ekartzea eta ematea gustatzen zait. Ideia hori gehienbat album ilustratuetan lantzen dut. Ilustratzeko testu bat jasotzen dugunean, testu hori bere horretan eta literalki marraztuko bagenu, indarra kenduko genioke testuari berari. Gure lana da interpretazio bat sortzea, batera doazen bi kontakizun paralelo bilakatzea. Txikitan ipuin asko irakurtzen nituen eta amak asko leitzen zizkidan, eta niri asko gustatzen zait ipuinak asmatzea, ilustratutako ipuinak, testu gabeak. Horregatik, niretzat luxu bat da ez dakit noren testu bat hartzea eta ilustrazioekin neure ipuina sortzea; testuarekin lotuta dago, baina nirea da berez. Eta karteletan ere saiatzen naiz zeezer kontatzen, ez irudi soil bat egiten. Iruditzen zait hori dela egiten dudana.

Txakur Gorria taldeko kide zara. Nortzuk zarete eta zer da Txakur Gorria?

Objektiboki, lau neskak sortu genuen talde bat da Txakur Gorria. Ane Labaka eta Nerea Ibarzabal arduratzen dira testuez, eta Mariñe Arbeo

eta ni gara ilustratzaileak. Unibertsitateko ikasketak bukatzen ari ginen garaian konturatu ginen zer egin nahi genuen: gure lan propioak sortzea. Jabetu ginen lan propio horiek argitaratzeko bi bide zeudela: argitaletxeetara jotzea edo lehiaketak irabaztea. Eta oso-oso aukera gutxi dago, bereziki, ilustrazioaren munduan sartzeko. Horregatik erabaki genuen geure lanak argitaratzen hastea. Pixkanaka, proiektua handitzen joan zen, sona gehiago hartzen, eta iritsi zen momentu bat kanpoko eskariak jasotzen hasi ginena, eta horiek fakturatu egin behar izaten genituen. Egiturarik ez geneukanez, kooperatiba bat sortu genuen duela hiru bat urte. Ordutik, kooperatiba horretan lan egiten dugu laurok. Geure soldatak ateratzen ditugu, diru kontuak eramaten ditugu... Pixka bat zaila da, baina hor gabiltza.

Pertsonalki, berriz, Txakur Gorria prozesu izugarri ederra da niretzat; oso gogorra eta asko nekatzen duena, ume bat bezalakoa delako, gurea delako, baina etengabeko ikasketa prozesu bat da, pila-pila bat ikasi dut. Hain barruan zaudenean ez da erraza izaten baloratzea, baina saiatzen naiz neure buruarekiko distantzia pixka bat hartzen, Txakur Gorria zer den begiratzen, eta kristorena iruditzen zait. Niretzat egundokoa da, egunero marrazten aritzeko, eta, gainera, hori modu profesionalean egiteko aukera ematen didalako. Eta, momentuz, ondo doa.

Txakur Gorriara itzulita, zer ibilbide osatu du orain artean taldeak?

Autoedizioko lanekin hasi genuen ibilbidea, eta Durangoko Azokara begira autoeditatzen genuen gehienbat. Durangon postu erdi bat jartzen hasi ginen, oso zaila baita han erakusmahai bat edukitzea. Orduan hasi ginen leku pixka bat egiten. Oso gauza arraroak egin ditugula esango nuke; atzera begira jarritakoan, harritu egiten naiz batzuetan. Bilboko Kafe Antzokirako ikuskizun bat eskatu ziguten, handik beste liburu bat etorri zen... Askok gertatu zaigun gauza bat da hori: gauza bat egin, eta horrek beste bat ekarri digu, eta beste bat atzetik gero, kate bat osatuz bezala. Guretzat lehenengo lan potoloa, sona handia eman ziguna, 2018ko Durango Azokaren kartela egitea izan zen. Horren ondoren lan asko etorri zitzaizkigun. Askotariko lanak egiten ditugu: gidoigintza, ilustrazioak, kartelgintza, logoak, aldizkari batzuetan idazten dugu, *Berrian* ere bi astetik behin kolaboratzen ari gara... Lan puntualak dira batzuk, eta jarraikortasuna dutenak besteak.

Sormen propioko lanak eta enkarguz egindakoak tartekatzen dituzue. Nola daramazue oreka hori?

Horri buruz hitz egiten ari gara gure artean, ea nolako Txakur Gorria irudikatzen dugun hemendik aurrera. Saiatzen gara urtean behin behintzat geuk taldean sortutako lanerako denbora hartzen; urte guztiak ez dira berdinak izaten, baina garrantzitsua iruditzen zait hori. Gustatuko litzaidake, nola ez, lan propioetarako denbora gehiago edukitzea; hori da dibertigarriena, guk nahi dugun hori egitea, hasi eta bukatu, prozesu osoa. Baina, noski, enkarguz edo besterentzat egiten ditugun lanak ere behar ditugu. Etengabeko oreka bilatze bat da.

Taldeko lana eta lan indibidualak nola bereizten edo uztartzen dituzue?

Hori da guretzat beste erronka handi bat. Oso zaila da kolektiboki lan egitea, kontu asko sartzen direlako tartean: bakoitzaren ardurak, inplikazioa, bakoitzaren egoa, inbidiak... dena. "Hau nik egin behar dut ala Txakur Gorriara bideratu behar dut?", zalantza hori askotan sentitu izan dut. Zaila da muga hori non dagoen jakitea, denok nahi

**"GURASOEI ZOR DIET
OINARRIA JARRI
ETA ERABAKIA
HARTZEN LAGUNDU
IZANA"**

**"JENDEAK DIO
IDENTIFIKAGARRIAK
DIRELA NIRE LANAK,
ETA USTE DUT HALA
DIRELA"**



"ASKO GUSTATZEN ZAIT IPUINAK ASMATZEA, ILUSTRATUTAKO IPUINAK, TESTU GABEAK"

dugulako bakoitzaren bidea errespetatzea, baina kolektiboa ere indartu egin behar da. Zaila da, baina era berean, oso ohituta gaude denataz hitz egitera, batzuetan gehiegi ere bai. Alde horretatik, asko ikasi dut, dagoena dagoela hitz egiten, momentuan sentitzen dudana adierazten, beldurrak plazaratzen. Horrela saiatzen gara ahalik eta uztarketa onena egiten eta ahalik eta orekatuen ibiltzen. Iruditzen zait nahiko ondo daramagula, baina batzuetan horrek pisatu egiten dit barruan, apustu bat egiten duzulako eta publikoki defendatzen duzulako kolektiboa, baina aldi berean, neure webgune pertsonala egin dudalako, adibidez. Egundoko ariketa da oreka hori mantentzea.

Bitan irabazi duzu Peru Abarka ilustrazio lehiaketa: 2018an, zure lankide Ane Labakaren testu bat ilustratzeko *Ezpainetako* libururako, eta 2020an, Kaiolarekin, Yolanda Larreategiren *Bi txantxangorri haritz adarrean* libururako. Zer ematen dizute halako sariak?

Poza. Peru Abarka lehiaketa polita da. Testu berri bat ekartzen dizute, argitaratu gabea, saria irabazi duena. Ilustrazio lehiaketarako, testu horren lagin bat egin eta aurkeztu behar izaten da, eta horrekin saria irabazten baduzu, proiektu osoa bukatu behar izaten duzu. Ipuinak asmatzea hainbeste gustatzen zaidenez, kristoren aukera da niretzat. Gainera, Euskal Herrian bi ilustrazio lehiaketa besterik ez daude, Peru Abarka eta Etxepare, eta azken horretara osatutako eta bukatutako produktuarekin aurkeztu behar duzu.

Azken saria, iazkoa, pandemia betean irabazi zenuen. Nola bizi izan duzu COVID-19aren eragina zure jardunean?

Lehen aipatu dudan moduan, Txakur Gorrian dena erori zitzaigun eta krisi momentu bat izan zen. Niretzat gogorra izan zen hasierakoa: gogoan dut egun batean, Bertsozale Elkartearen bulegoan lanean ari nintzela, saio denak nola erori ziren. Eromen bat izan zen egun hura. Eta nik ezin nuen sinetsi, ondo akordatzan naiz: "Baina nola?". Baina bai, saio guztiak bertan behera gelditu ziren, eta begira noiz arte, orain arte. Ni oso zortedun sentitzen naiz, guk berriro hartu dugulako martxa eta neuri zuzenean ez didalako horrenbeste eragin krisiak. Baina ingurura begiratu eta jendea nola dagoen ikusten duzu; hasi teknikoetatik eta sortzaileetarako, ikusten duzu zer den hau, eta



kristoren beldurra ematen du. Urtea gogorra egin zait orokorrean, eta, gainera, zer egoera ekarri duen ikusita, kulturak nolako kolpea hartu duen ikusita, are gogorragoa. Eta bai, orain berriro hasi da aktibatzen, baina lehengora ailegatzeko... Gauza asko daude jokoan. Asko hitz egin da osasunari buruz urte honetan, eta nik uste dut buruko osasunean ere arreta jarri beharko genukeela.

Lanari dagokionez, martxa berreskuratu duzuela diozu. Zer momentutan zaudete Txakur Gorrian?

Gure kasuan, pandemiaren hasierarekin proiektu denak atzeratu egin ziren. Eskertuta gaude, proiektuen antolatzaileak-eta

gurekin ondo portatu direlako, kontziente izanda zer egoeratan geunden. Era berean, pixka bat lasaiago egoteko aukera ere eman digu egoera horrek. Hala ere, nik aurtengoaz dudan sentsazioa da lan pila bat edukitzetik bat-batean ezer ez edukitzera pasatu garela, eta atzera berriz lan asko pilatzera. Ez da zerbait graduala izaten ari; dena da oraintxe gora, oraintxe behera. Egoera horretan, proiektuaren etorkizuna irudikatzea bera zaila egiten da, ezinezkoa da urtebete barru nola egongo garen aurreikustea. Uste dut denoi gertatu zaigula antzeko zerbait. Ematen zuen mundua kontrolatzen genuela, baina konturatzen zara ez dela horrela, hau kaka bat dela eta nahi dutena egiten ari direla gurekin.


Bertsotan jarraitzen al duzu?

Bertsoekin adiskidetzen ari naiz nolabait, ez dakit nola esan.

Haserretuta egon al zara ba?

Ez dakit haserretuta egon al naizen. Nire egunerokotasunean oso presente dago bertsoa ezinbestean, Bertsozale Elkartearen aritzen naizelako. Egia da, hala ere, beti kostatu izan zaidala asko jendaurrean neure burua bertsolari bezala aurkeztea. Badakit ilustratzailea naizela, irudigilea, baina bertsolaria... Bai, banaiz, baina aspaldian ez dut egin bertsotan. Eta orain pixka bat izututa ere banago, Bizkaiko Txapelketa datorrelako; azaroan daukat saioa eta hasi beharko dut berriz. Neure burua oholtza gainean kokatu nahian ari naiz. Oso agerian gelditzen zara hor gainean. Adibidez, duela bi urteko Bizkaiko Txapelketan oso ondo pasatu nuen eta nahiko nuke berriro horrela sentitzea. Baina, gero... Gustatuko litzaidake saio batzuk edukitzea, oso ondo pasatzen dut neskak egiten ditugun *Ez da kasualitatea* saio musikatueta ere, baina ez dakit, birkokatzen bezala sumatzen dut neure burua. Ez nengoen haserre bertsoekin, baina adiskidetu egin behar dut nire baitako bertsolariarekin. Sinetsi nahi dut bertsolari izateko mila modu daudela eta ni ere banaizela. Dibertitzeko kantatu nahi dut, ez ofizio gisara. Lortuko dut, adiskidetu naiz.

***Beti bezperako koplak* (2016) animazio filmean ere parte hartu zenuen. Zer moduzko esperientzia izan zen hura?**



**"SINETSI NAHI DUT
BERTSOLARI IZATEKO
MILA MODU
DAUDELA ETA NI ERE
BANAIZELA"**

Kristoren esperientzia izan zen. Mariñe [Arbeo] eta ni Gradu Amaierako Lana egiten ari ginen, animazioko beste film bat, hain zuzen ere. Bego Vicario zen gure tutorea. Maialen Lujanbiok testu zoragarri bat irakurri zuen behin irratian, eta testu harekin zerbait egin behar genuela sartu zitzaion buruan Begori; hortik abiatu zen *Beti bezperako koplak*. Eta imajinatu proiektua noraino zabaldu zen; Mariñe eta biok Kosovora joan ginen aurkeztera. Leku pila batera joan ginen eta sari pila bat irabazi zituen filmak. Egundokoa izan zen, eta oso oroitzapen ona daukat. Lantalde hartakoek lanean jarraitu dute gerora, eta film berriak egin dituzte. Whatsappeko talde bat daukagu eta hor nago ni ere, baina ez dut proiektu gehiagotan parte hartu. Batzuetan esaten dut "hurrengoan ni ere bai", baina... Izan ere, oso ondo pasatzen dut, asko gustatzen zait taldean lan egitea eta taldean sortzea, eta hura ederra izan zen.

Zeure eta Txakur Gorriaren zer proiektu dituzu esku artean momentu honetan?


Oraindik liburu bihurtu ez diren bi idazleren testu proposamenak dauzkat ilustratzeko. Azken hilabeteetan nahiko lanpetuta ibili naiz, eta pixka bat antolatu eta egin beharrekoak diren eta hor zain dauzkadan lanei buelta nola eman ikusi behar dut. Txakur Gorrian ere liburu batzuekin ari gara lanean; poema liburu batekin ari naiz ni, adibidez. Taldeari forma ematen ere ari gara, etorkizunari begira nola jarraitu zehazteko. Neure webgunea martxan jartzea ere egitekoen artean daukat; Guka Zerbitzuak diseinatu dit. Urtarrilean egin zidaten, baina oso lanpetatuta ibili naizenez, oraindik ez daukat bukatuta; laster bukatzea eta martxan jartzea espero dut. Bestetik, Dinagu emakume sortzaileen kolektiboan ere bagaude Txakur Gorriakoak. Azoka ibiltari bat antolatu du Dinaguk, neure lan propioak ateratzera noa azokarako, eta horretarako ere badaukat gogo. Jendearekin egoteko beharra daukat. Beraz, azoka bat, eta neure lanak... Horixe da orain behar dudana. ■■■

Koh Tao
OSAGARRIAK +
PIERCING ESTUDIOA
9. JOAN DE AITUEN, 14- 30730 ALPESITA 6. 826 178 758

LAU
NEUMATIKOAK
PNEUMATIKOAK - MEKANIKA AZKARRA
943-053056 Leiole kalea 20, 200730 Agostiña

**JARRI HEMEN
ZURE IRAGARKIA!**

NON DAGO UZTARRIA?



Ekaineko Uztarrria aldizkarian Uztarrria pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen, eta Ixabel Jauregi bazkidea izan da irabazlea. Lehiaketan parte hartzeko aurkitu aldizkarian Uztarrria pertsonaia eta bidali erantzuna *lehiaketa-kuztarrria@gmail.com* e-postara uztailaren 14a baino lehen. Bazkidearen izena eta telefono zenbakia zehaztu behar dira.

Saria: Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta.

Ixabel Jauregi da hilabete honetako irabazlea.





**URDAIAZPIKO,
HESTEBETEAk eta GAZTAK**

Etxeko berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOA



Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damazo Azkue 6
AZPEITIA

"Egunerokotasunean eta etorkizun motzean zentratzen naiz"

AITOR ZUBIZARRETA SASKIBALOI JOKALARIA

Saskibaloiak txikitatik izan du lekua Aitor Zubizarretaren bizitzan, eta horretan dihardu gaur egun ere. Bere ibilbidean zehar hainbat taldetatik igaro eta esperientzia ugari bildu ditu. Orain, azkenengo denboraldia amaitu ondoren, Azpeitian dago.

Testua: **Nagore Aizbitarte**. Marrazkia: **Olatz Alkorta**. Argazkiak: **Uztarria eta utzitakoak**.

raurgi SB, Bilbao Basket, Palentzia eta Caceres. Talde horietan ibili da Aitor Zubizarreta (Azpeitia, 1995) azkenengo lau denboraldietan, eta gaur egun, Palentzian bigarren denboraldia egin ondoren, Azpeitian dago, hurrengo sasoiari begira. 18 urterekin, enpresa ikasketak eta saskibaloia profesionala uztartzeko nahiarekin, Ameriketako Estatu Batuetara joan zen lau urterako: lehenik, Portlandeko Unibertsitatean egin zituen bi urte, eta ondoren, Idahon beste bi. Geroztik, ez dira gutxi izan saskibaloia munduan eman dituen pausoak.


Jokalariak aitortu du saskibaloirekiko zaletasuna etxetik datorkiola: "Aitak eta anaia zaharrak eragin zuzena izan zuten horretan". Zubizarretak dio anaia partidak eta entrenamenduak ikustera joaten zela, eta batzuetan, atsedendietan, "kantxara jaitsi eta saskiraketa batzuk egiten" zituela. "Hortxe hasi zen dena". Umea zela ez zuen pentsatzen etorkizunean saskibaloia jokalaria profesionala izango zenik, baina urteek aurrera egin ahala, horretarako "aukerak" zituela ikusten hasi zen. Zehazki, Espainiako selekzioak lehenengo kontzentrazioetara deitu zuenean pentsatu zuen hori. Orduan konturatu zen inguruan zituen

beste jokalaria "harrobi handietakoak" zirela, eta zera pentsatu zuen: "Eta zergatik ez dut nik ere saiakera egiten?"

Saiakera horri ekiteko, AEBetara joatea erabaki zuen. Jokalariaren esanetan, beren etxean "oso garrantzitsuak" izan dira ikasketak betidanik, eta argi zuen horiek ez zituela utziko saskibaloian jokatzeagatik. Hain zuzen ere, atzerriko esperientzia horrek aukera ematen zion ikasketak eta goi mailako saskibaloia uztartzeko; izan ere, Zubizarretaren arabera, hemen hori "ez da erraza".

Azkar nabaritu zituen bi herrialdeen arteko ezberdintasunak: "Hemen 150 pertsonaren aurrean jokatzen nuen, eta hara iristean, lehenengo partidari 20.000 pertsona bildu ziren". Euskal Herritik AEBetara joatea "aldaketa handia" izan zen Zubizarretarentzat, eta hasieran "zaila" egin zitzaioela aitortu du, baina, hala ere, bere "bizitzako esperientziarik onena" izan dela dio. Azpeitiarra ez da damutzen hartu zuen erabakiaz: "Nire buruaz harro nago esperientzia hartan murgiltzeko ausardia izan nuelako".

AEBetako unibertsitate batean murgiltzea eta hango egunerokotasuna bizitzea "esperientzia ahaztezina" izan zela dio Zubizarretak. Haren





arabera, filmetan ikusten denaren “oso antzekoa” da hango errealitatea. Jokalariak azaldu duenez, kirolariei izugarrizko errespetua diote han: “Oso azpimarragarria da kirolari ematen zaion indarra”. Dena ez da, ordea, saskibaloia. Jokatzeko eta entrenatzeko jarraitu nahi izanez gero, ikasketetan nota mantentzeko eskatzen du ligak. Zubizarretaren arabera, enpresa ikasketak eta saskibaloia uztartzea ez zen “horren lan gogorra” izan laguntza jaso zuelako: “Oso ondo antolatuta dago dena, eta jokalariek dituzten beharretara egokitzen dira”.

Espereintzia hark amaierara iritsi behar zuen, ordea, eta saskibaloi jokalaria adierazi du ez zela “erraza” izan. Euskal Herrira iritsi zenean, Bilbao Basketek fitxatu zuen, eta Iraurgi SBri utzita egon zen urtebetez. Urte hartan bere “gorabeherak” izan zituela aitortu du azpeitiarrak; izan ere, ez zuen atseden hartzeko denbora asko izaten: “Asteazkenean Bilbao Basketeko eta Iraurgiaren entrenamenduak uztartu behar izaten nituen, baita partidak ere. Gainera, nire buruari presio asko jartzen nion”.

Garrantzitsuena, haztea

“Une honetan nire ibilbideaz galdetuz gero, gustura nagoela esango nuke”, dio saskibaloi jokalaria. Ibilbidean zehar “gorabeherak” izan baditu ere, jokalaria bezala hazten jarraitzea iruditzen zaio garrantzitsuena. Azken batean, badaki bizi izandako zailtasunek gaur egun den saskibaloi jokalaria eta pertsona “eraikitzen lagundu” diotela, eta egindako aldaketekin “oso gustura” dago.

COVID-19ak Caceresen (Espainia) harrapatu zuen Zubizarreta, etxetik urrun. Izurria zabaltzen hasi zenetik hilabete igaro zenean, jokalariei etxera itzultzen utzi zieten, eta hala, Azpeitira etorri zen. Etxean entrenamenduetako eskakizunak mantentzea zaila bazen ere, Zubizarretak dio garajeaz entrenatzen jarraitzeko aukera izan zuela, nola edo hala: “Bizikletarekin ibiltzen nintzen, eta pare bat baloiekin boteak egiten nituen. Errutina bat jarraitzen nuen, eta modu horretan, egunak errazago pasatzen ziren”.

Partidak itzuli zirenean, harmaila hutsei aurre egin behar izan zieten kirolari askok eta askok, eta Zubizarretak adierazi duenez, hori ez da “erraza” izan: “Askok nabaritzen zen ikusleen falta; partidek entrenamenduak ziruditen. Jokalarien arteko ahotsak asko entzuten ziren, eta hori oso arraroa egiten da”. Saskibaloi jokalaria dioenez, pandemiaren aurreko partidetan, Palentzian

Aitor Zubizarreta

- **Jaiotze data:** 1995eko martxoaren 6a.
- **Ikasketak:** Enpresa Administrazio gradua eta Marketin Digital eta E-commerceko master bat.
- **Lanbidea:** Saskibaloi jokalaria.
- **Saskibaloi jokalaria ez banintz...** Informatikaria izango nintzateke.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Lagunekin egotea.



(Espainia) pabilioia jendez betetzen zen astero; 5.000 pertsona inguru biltzen ziren: “Eremua beteta ikustetik hutsa ikustera igarotzea, egia esan, ez da erraza izan, ez guretzat, ezta zaleentzat ere”.

Urte hauetan guztietan etxekoek nahiz lagunek eman dioten babesa ere azpimarratu nahi izan du Zubizarretak: “Etxean beti nire partida denak ikusten dituzte”. Anaia zaharrak, adibidez, neurketen amaieran beti ematen dio bere iritzia: “Asko gustatzen zait jokatu ostean nola ikusi nauten galdetzea”. Azpeitiarrak kritikak ondo jasotzen dituela dio: axola zaion jendearen iritziaik soilik jasotzen ditu, eta horiez hausnartzen du. Partida bat bukatzean, gauza asko irakur ditzake jokalaria sare sozialetan –Twitterren, adibidez–,

baina garrantzi handirik ez ematen saiatzen da: “Zeuk erabakitzen duzu zer ikusi, zer irakurri eta nori egin kasu”.

Etorkizunaz galdetuz gero, Zubizarretak dio ez duela asko pentsatzen etorriko den “zera” horretan: “Egunerokotasunean eta etorkizun motzean zentratzen naiz”. Beraz, azkenengo denboraldia Palentzian igaro ondoren, hurrengoari begira dago, baina lasai. Zubizarretak azaldu duenez, berarentzat “garrantzitsua da egun bat nola hasi eta nola bukatu pentsatzea”. Entrenamenduetan eta partidetan dena ematen saiatzen da, ikasten jarraitzeko: “Beti egongo dira partida onak eta txarrak, eta jokalaria bezala ahazten jarraitzeko, beti saiatuko naiz hobetzen eta ikasten”. ■



URRATEGI
INTERIORISMO
barru diseinua


Arretxe 9
20730
Azpeitia
943-85 72 44

Arrogueta 27
20600
Eibar
943-85 72 44



www.urrategiinteriorismo.com

dica www.dica.es



DOMINOAN

Osa itzazu
lauki zuriak,
domino zati
honek zentzua
izan dezan.



Meloia, angurria,
muxika eta bi
izozki mota
marraztu
behar dituzu.



Siestan

Bederatzi irudi-zati horetatik sei engainariak dira,
hau da, ez daude irudi nagusitik hartuta, hala diruditen
arren. Zeintzuk dira anak eta zeintzuk engainariak?



Sudoku

Uztaila eta abuztua (edo agorrila)
urteko hilabeterik ederrenak dira
batzuentzat, sasoi horretan ez
delako eskola joan beharrik izaten.
Bete itzazu bi sudokuak, lehena
UZTAIL hitza osatzen duten
hizkiak idatziz (U, Z, T, A, I eta
L), eta bigarrena AGORRIL hitza
osatzen duten hizki desberdinen
bidez (A, G, O, RR, I eta L).
Gogoratu hizki bakoitzak behin
agertu behar duela ferreo, zutabe
eta area bakoitzeko.

U	I		T	Z
		Z		U
	L			T
A		T		L
	A		T	
U				Z

		G		RR
RR	A		O	
I			G	RR
L				O
	L			I
	RR		L	G




Ai ene! Tronpolinera igo eta irrist egin du gizajoak! Zein da bere itzal zuzena?

Itzala



Hamakakoa



Aurki itzazu bi irudien artean dauden 11 aldeak.



Ordona itzazu arrain harrigarri hauek handitik txikira, handienari 1 zenbakia emanez, eta txikienari 6.

Handitik txikira



Mezua

Eman marrazki bakoitzari dagokien hizkia eta esatera polit bat agertuko zaizu.



GIPUZKOAK

BADU

ETORKIZUNA



Zu bezalako 720.000
gipuzkoarrei esker,

**Europar
desberdintasun
maila txikienetarikoa**
duen lurraldea izan nahi du Gipuzkoak.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Euzko Legebiltzari
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
OMIAIN
In futuro

ETORKIZUNA
ERAIKIZ
#GipuzkoarKongrmiasea

Kale edo bale



OIER ETXEBERRIA

Mostradore baten aurrean ebakia eta kafesnearen artean zalantzan nengoela, haur talde bat norbere gosaria eskatzen ikusteak iraganeko kontuak berritu zizkidan. Oroitzapenen tiraderan goxo gordeta ditudan ume garaiko larunbat goizak. Eskola kiroleko partida amaitutakoan, Xiriakora joan ohi ginen hamaiketako legea egitera.

Garai hartan, pintxo edo pastelen artean zer nahi nuen galdetzen zidatenean, aukeraketa irizpide argia eta bakarra izaten nuen: niretzat dagoen handiena (txokolatezko palmera edo natazko bonba, denak aitortzen hasita).

Pentsa liteke, lehen jaunartzea egin berri duen haur taldeak apenas har lezakeela Cola Cao edo kafesnearen artekoa baino erabaki garrantzitsuagorik. Umeak zoriontsu baitira ardurarik ezaren inozentzian. Orain, ordea, garaian uste baino pisu handiagoa ikusten diet lagun arteko ibilera haiei, orduan hasten baita nabarmentzen nor den liderra eta nor jarraitzailea; zein sartuko dugun kuadrillan eta zein bota. Ez dago zalantzarik, gerora, nork bere bidea egiten duela, baina gutxien uste denean jartzen dira bizimoduaren oinarririk sendoenak. Haietako asko goxoki dendaren aurreko korroetan.

Esperantzara ez dakit, baina etengabeko aukeraketara kondenatuta gaude, eta aukeraketa horietako bakoitzak kondenatzen gaitu. Denok isiltasunaren ugazaba eta hitzen gatibu omen gara. Bistan denez, gertaeren jabe eta erabakien maizter ere bai.

Pijama arrosa edo urdina, futbola edo saskibaloia, zientziak edo letrak, alokairua edo hipoteka, furgoneta edo hotela, ezkerra edo eskubia, makulua edo ebakuntza, zaintzailea edo erresidentzia. Normalean ikasle kaskarrei asko gustatzen zaizkie test erako azterketak; idatzi beharrik gabeak, *a* edo *b* aukeratzeko horietakoak. Zalantzaren aurrean *c*; alegia, erantzun guztiak dira okerrak.

Askotan, erabakirik sinpleenak hartzen pasatzen da denborarik gehien: zer zaporetako izozkia erosi edo zein kartoizko kaxa bota zaborretara. Mark Zuckerbergekin, Facebook sarearen sortzaile eta akziodun nagusiak, arropa modelo berbera jantzen omen du egunero. Goizean zer jantzi aukeratzen denbora galdu

**ESPERANTZARA EZ
DAKIT, BAINA
ETENGABEKO
AUKERAKETARA
KONDENATUTA GAUDE**

beharrean, energia probetxu gehiagoko ekintzetara bideratzeko. Bizitza guztia bainilazko izozkia jaten pasatzea bezala...

Arazoak beti gerorako atzeratzea *diktadorearen mahaia* paradoxarekin azaldu zidaten. Diktadoreak mahai gainean bi dokumentu pila izaten omen zituen: alde batean denborak konpondu zituen arazoak zeuzkan; eta bestean, berriz, denborak konponduko zituenak. Apenas egiten zuen diktadoreak paperak mahaiko pila batetik bestera aldatzea baino.

Bidegurutzeetan, arrasto batek zerura eta besteak amildegira garamatzala ematen du. Horrelakoetan, irizpide propioa izatea oso beharrezkoa da, bakoitzak bere ibilia originaltasunez urra dezan. Ordea, errepidean gainontzeko auto guztiak kontrako norantzan gurutzatuz gero, pentsatu beharko da ez ote den norbera erreiz nahastuta dabilena. Nora doan ez dakienarentzat, bide guztiak dira okerrak. Bageneki nondik itzuli, ume garaiko larunbat goizetara...

Ondo pentsatutako eta sakon hausnartutako erabakiek desegokiak izateko arriskua dute. Konpultsiboki beroan hartutakoek kontuak atera. Agidanez, hatu gabeko erabaki bat bezain okerrik ez omen da; beraz, zuzena bada burruntzia, okerra bada igitaia, zabala bada pala. Jo dena dela. ■■■

Dena ez da erremontea

JAGOBA LABAKA ERREMONTISTA

Askorentzat erremontista da Jagoba Labaka, beste zenbaitentzat sukaldaria. Zezenzaleak direnentzat, aldiz, sokamutila da, eta ehiztaria ere bada. Bi esku ditu, eta hamaika zaletasun. Horien inguruan zertxobait gehiago jakin nahi izan du Uztarriak.

Testua: **Maialen Etxaniz**. Argazkiak: **Maialen Etxaniz eta utzitakoak**.

1 6 urte zituela hasi zen erremontean Jagoba Labaka (Azpeitia, 1991), eta 21 urterekin egin zuen debuta Hernaniko (Gipuzkoa) Galarreta frontoian. Aurten, 30 urte bete ditu. “Dagoeneko bederatzi urte igaro dira debuta egin nuenetik...”, gogoratu du. Bederatzi urte horiek askorako eman diote; izan ere, urte horietan guztietan ez da geldirik egon erremontista azpeitiarra, eta pixkanaka-pixkanaka, urratsez urrats, egin du bidea erremontearen munduan. Gaur egun, txapelketaz txapelketa dabil, “gustura”, gainera. Baina Labaka ez da erremontista bakarrik; baditu beste hainbat zaletasun. Horregatik, Labakaren beste aldea ezagutzeko asmoz elkartu da Uztarria harekin.

Beti izan da kirolzalea. Gaztetxoa zela, Lagun Onak futbol taldean aritu zen hainbat urtez, atezain lanetan. Erremontean aritzen ziren bi lagun zituen azpeitiarrak, eta haiei esker ezagutu zuen kirol hori gertutik. “Futbolearen aritzen nintzen garaian, nire bi adiskide Azpeitiko erremonte eskolan ibiltzen ziren entrenatzen, eta egun batean, haiek ikustera joan nintzen frontoira. Kirola gustatu eta probatzeko grina piztu zitzaidan. Azkenean, animatu egin nintzen. Probatu eta ondo moldatzen nintzela ikusi nuen; gainera, gustura aritzen nintzen. Horrela, pixkanaka, hasi nintzen

mundu horretan murgiltzen”, kontatu du Labakak. Hasieran, batera praktikatzen zituen futbola eta erremontea, baina erremontean gusturago aritzen zela ikusita, futbola uztea erabaki zuen, eta erremontean zentratzen hasi zen. Bide horretan, Pello Aizpuru erremontista ohia izan zuen lagun hasieran, eta Galarretara egin zuen salto ondoren. “Azpeitiko erremonte eskolan egin nituen lehen urratsak, eta han hasi zen nire formakuntza; Aizpuruk ematen zituen eskolak Izarraitzen. Zortzi lagun inguru aritzen ginen han, eta asko ikasi genuen. Kirolera egokitu eta pixka bat hobetu ginenean, Galarretako erremonte eskolara animatu ginen. Han Ibon Sarasuarekin entrenatzen genuen, asteen hiru aldiz. Gainera, batzuetan profesionalekin entrenatzeko aukera izaten genuen. Horrela joan ginen pixkanaka maila hobetzen. Entrenatu eta entrenatu, debutatzera iritsi nintzen”.

21 urterekin egin zuen salto profesionaletara Labakak, sukaldaritzan mundura jauzi egitearekin batera.

Sukaldean hazitako gaztea

Gaur egun, Loiola hoteleko sukaldaria da Labaka, eta ondo ezagutzen du bertako sukaldea. Haren hitzetan, “sukaldean hazitako umeak” dira bera eta anaia. “Gurasoek hotela dute, eta txiki-





txikitatik ezagutzen dugu bertako sukaldea. Niri betidanik gustatu izan zait sukalde kontuetan saltseatzea, eta horrek bultzatuta animatu nintzen sukaldaritza ikasketak egitera”, azaldu du erremontista azpeitiarrak. Batxilergoa bukatu eta Argiñanoren Aiala eskolan egin zituen ikasketak bi urtez. Ondoren, arlo horri lotutako praktikak egin zituen euskal sukaldari ospetsuen jatetxeetan. “Aurrena Arbelaitz anaien jatetxean egin nituen praktikak, Miramonen; ondoren, Arzaken urtebetez, eta jarraian, Martin Berasategirenean. Asko ikasi nuen haiei esker. Zorte handia dugu hemen, sukaldari oso onak baitauzkagu Euskal Herrian nahiz Gipuzkoan, eta lanerako gogoa eta modua izanez gero, esku zabalik hartzen baitzaituzte etxean”, kontatu du Labakak. Sukalde kontuetan trebatu ostean hasi zen Loiola hotelean lanean, eta bertan jarraitzen du gaur egun ere.

Hori da bere lanbidea, eta oso gogoko du sukaldean orduak pasatzea. “Ez da lan gogorra fisikoki, baina bai sakrifikatua beste kontu batzuengatik; esaterako, ordutegi edo egutegi aldetik. Beti kontraeran ibiltzen gara: jendeak jai duenean, guk lana izaten dugu, eta zentzu horretan, bada pixka bat gogorra. Izan ere, lagunekin edo bikotekidearekin planak



egiteko-eta komeriak izaten ditugu batzuetan. Gainerakoan, asko atsegin dudana da”.

Ehiza eta sokamuturra

Hoteleko sukaldean aritu beharrak batzuetan planak egiteko zailtasunak jartzen dizkio Labakari, baina asmatzen du gustuko gauzetarako denbora hartzen ere; esaterako, ehizera joateko.

Etiket datorkion zaletasuna da ehiza. “Ehiztaria ere banaiz, eta denbora libre dudanean, ehizera joatea atsegin dut. Gehienetan aitarekin eta anaiarekin joaten nahiz, baina baditut horretan aritzen diren lagunak ere”, azaldu du Labakak. Erremontista azpeitiarrari txikitatik gustatu izan zaio ehiza: “Aita ehiztari amorratua da, baita anaia ere. Esango nuke aitarengandik jaso dugun zaletasuna dela ehizarena. Anaiak txakurrak ditu, eta horiekin joaten gara Huescara (Espainia) ehiza denboraldian. Tira, ni tarteka-tarteka joaten naiz, sukaldeko lanak eta erremonteko partidak tarteko, ez baitut egun libre askorik izaten. Hori bai, libre dudanean ikaragarri gustatzen zait hara joatea”.

Ehiza zalea ez ezik, sokamuturzale amorratua ere bada Labaka. Zezen Beltz elkarteak kidea da, baita sokamutula ere. Beraz, Azpeitiko festak sokamuturrik gabe modu berean gozatzen ez dituen horietakoa da. 2008ko sansebastianetan



Labaka, Loiola hoteleko sukaldean. MAIALEN ETXANIZ

**"AZPEITIKO ERREMONTE ESKOLAN
EGIN NITUEN LEHEN URRATSAK,
PELLO AIZPURUREKIN, IZARRAITZEN"**

**"GURASOEK HOTELA DUTE, ETA
TXIKI-TXIKITATIK EZAGUTZEN DUGU
ANAIK ETA BLOK HANGO SUKALDEA"**

**"EDERRA DA KALERA ATERATZEA,
TABERNAN TRAGO BAT HARTZEA ETA
MOKADUTXOA EGITEA"**

atera zen sokamutil aurrenekoz, espero baino lehenago. Izan ere, Labakak urte horretako inauterietan jantzi behar zuen sokamutil jantzia lehen aldiz, baina beste kide batek min hartu zuenez, haren lekua bete eta sansebastianetako sokamuturrean egin zuen estreinaldia. Gaur-gaurkoz sokamutil izaten jarraitzen du, eta oraingoz, ez du lekua libre uzteko asmorik. Ehizerako zaletasuna bezala, sokamuturrerako grina ere txikitatik datorkio azpeitiarrari, eta urtero-urtero, sokamutil bezala ez bada ere, herriko festetan zezenaren aurrean jartzera animatzen da. "Zezen ikuskizunaren bueltako giroa atsegin dugu", dio. Horregatik, gazteagoa zela beste herri batzuetara ere joaten zen zezenak ikustera, lagun artean. Errekortarien ikuskizunak ere atsegin ditu, eta Nafarroa aldera ere jo izan du horietaz gozatzen. Zezen Beltz elkartean badira zezenzale gazteak, baita helduagoak ere, eta horiek denek sarritan elkarrekin gozatzen dute beren zaletasunaz.

Zezenak ikusi ez ezik, horien aurrean korrika ere egin izan du Labakak. Esaterako, San Fermin festetako entzierroetan atera izan da behin baino gehiagotan. Hala ere, Labakak dio berak lagata dituela entzierroak.

Jan-edana, gozagarri

Janegun bat amaitu, etxera iritsi, eta zer egitea atsegin duen galdetuta... "Gustukoena garagardo bat ireki eta pintxo bat jatea" dela dio, barre artean. Labakari berdin dio berak prestatutakoa edo beste batek egindakoa izan; momentu horretaz gozatzea atsegin du. "Kalera atera, tabernaren batean trago bat hartu eta mokadutxoa egitea ere ederra da. Niri jatea eta edatea gustatzen zait gehien", aitortu du.

Sukaldean aritzen da egunerokoan, hoteleko bezeroei ahalik eta jaki goxoenak prestatzen. Dena den, berari ere ikaragarri gustatzen zaio jatea, edatea nahiz gauza berriak probatzea. Esaterako, ardo desberdinak dastatzea eta probatzea atsegin duela dio. Horregatik, ahal duen guztietan saiatzen da gastronomiaz gozatzen.

Gaztea izanagatik, badu zer kontatua Azpeitiko erremontistak. Orain, gainera, aita ere bada, eta esperientzia horretan murgilduta dago betebetan. Familiako kideak ondoan ditu beti, eta haien babesik ez zaio falta erremonte txapelketetan. Ezin jakin haren ondorengoek jarraituko dioten aitaren zaletasunei, baina, oraingoz, erremonteak, gastronomiak, ehizak eta sokamuturrak badute lekua haien etxean. ■■■

AZPEITIAK

bat gehiago



**BATU UZTARRIAREN PROIEKTURA,
BATZEN GAITUENA GARA!**

Egin zure ekarpena: bazkide@ukt.eus - 943-81 38 41

Despedidak



PAOLA MOTO

Ekainaren 18a. Hemen nago, bi hilabetetik behin idazten ditudan artikulu hauei agur esaten. 27 urte ditut, eta bestelako agurrak ere iritsi dira. Joan den astean izan nuen lehen 'despedida'. Kuadrillako lehenengoa ezkontzen zaigu. Denetan gazteena eta panpinena dirudiena.

Agur esan ezkongabetasunari. Duela urte gutxi batzuk buruan genuen azken gauza zen, baina badirudi dena iristen dela, eta ustekabeen harrapatu gaitu batzuk. 11 gara taldean. Baten batzuoï burua lehertzen zaigu gertukoak ezkontzen direla ikustean, haurdun daudela jakitean, etxeak erosten dituztela entzutean... Baina inguruan hori usaintzen da; gero eta gehiago, gainera.

Zer esan nahi du urteak betetzeak? Bizitza perfektua izan eta gizarteak ezarritako kanonak bete behar ditugula guztiok? Ezkondu, etxea erosi, familia osatu... Ezin dut ulertu aurrekoek emandako pausok zergatik eragiten diguten presioa, baina ezin dut ukatu nik neuk ere sortzen diodala neure buruari presio hori. 'Berandu' noala sentitzen dut, nire gertuko zenbaitek pentsatuko duen bezala.

Zergatik? Eta ezin badut ezkondu? Eta ezin badut etxea erosi? Eta ezin badut umerik izan? Kanon horiek zertarako balio digute? Bizitza normalak normalak ez direla esateko, besterik ez. Agur kanonei, agur bizitza idealari. Hori baino gauza gehiago daude zer den 'ideala' definitzeko eta.

Gaitik alde egiten ari naiz. Ekainak 12. Hamar lagun herriko plazan bildu, ezkontzera doana mozorrotu eta plazan txoro haizea lagun ibili ondoren, bagoaz autoetan Kantabria aldera. Gazteako esatariari iritsi zaio gure txoro haizea (autopilaketen kulp), eta lortu dugu eskatutako kanta jartzea.

Asteburu osoa guretzat, eta gure lagunarentzat. Kostatu da dena antolatzea. Baina, orain, bizitza ospatzen gaude. Aspaldiko partez, herritik irten eta parranda egin, barre, dantza, megafonoak martxan, zakilak, kartelak... dena dantzan! Baita eztarriak ere!

Bueltan gatoz, gidariak autoaz nazkatuta. Baina pasatu dugun asteburua ezin esan azken bi urteetako onena izan ez denik. Merezi izan du, despedidak merezi izan du.

Lehenak omen dira onenak, eta lehena iristean beste denak atzetik jarraian etortzen direla esan digute. Zein ote da hurrena? Egongo ote da? Umeak tartean, agian? Etortzen dena etortzen dela, kuleroak buruan eta ibili munduan!

Mila esker irakurtzeagatik, eta hurrengora arte.

"Baina berdin du jada nik ez zaitut maite bila ezazu beste bat eta ikusi arte..." (Berri Txarrak). ■■■

**KANON HORIEK
ZERTARAKO BALIO
DIGUTE? BIZITZA
NORMALAK NORMALAK
EZ DIRELA ESATEKO**



10 urte, kultura hauspotzen

Uztailaren 24an 10 urte beteko ditu Sanagustin kulturguneak. Hasierak errazak izan ez baziren ere, urrats handiak egin ditu proiektuak urteotan, kulturari hauspoa emanez.

Argazkiak eta testuak: **Kulturaz Azpeitiko kultur kooperatiba.**



IREKIERA EGUNeko EKITALDIA

2011ko uztailaren 24an ireki zuten Sanagustin kultur gune osatua, ostalaritza zerbitzu eta guzti, Azpeitiko Kultur Mahaiak sortutako Sanagustin Kultur gunea Kooperatiba Elkarteak kudeatuta. Irudian, irekiera eguna.



HASIERA ZAILA

Krisi ekonomikoa nahiz jendearen ohiturak eta joerak tarteko, ez zen erraza izan hasiera, baina herriko kultur dinamika biderkatzea lortu zen Sanagustin kultur gunearen bidez, haren sustatzaileek azaldu dutenez. “Euskal Herriko kultur gune erreferente bihurtzeraino iritsi da”. Irudian, *Aitzealdenk! 02* jaialdia, Sanagustin kultur gunean, 2012an.



EUSKAL KULTURARI BULTZADA

Proiektuaren bidez, euskal kultura, euskaraz egiten eta sortzen dena, bultzatu nahi izan da. Ekitaldien %9 baino ez dira izan euskara ez den beste hizkuntza batean. Argazkian, Sanagustin jendez beteta Deloreanen kontzertuan, 2013ko apirilean.



KULTURAZ MARKAREN SORRERA

Soreasu antzokia kudeatzen hasi zen kooperatiba 2014an. Zinema eskaintzeaz gain, kultur jarduera hedatzeko ate berriak zabaldu zituen antzokiak. Hainbat espazio kudeatzen zirela eta kultura osotasunean lantzen zela ikusita, Kulturaz marka hartu zuen kooperatibak. Irudian, herriko eragileek elkarlanean antolatutako Olentzeroren ikuskizuna, 2014an, Soreasu antzokian.



ASKOTARIKO ARTISTAK OHOLTZAN

Talde hasi berrietatik sona handiko artistetaraino, molde guztietako kultur gileak pasatu dira Sanagustingo oholtzatik. Irudian, Javier Krahe kantautore madrildarra, 2015eko otsailean, Sanagustinen.



HAMAR URTE, 1.500 EKITALDI

Azken hamar urteotan, 1.500 kultur ekitaldi baino gehiago antolatu ditu Kulturaz kooperatibak. Irudian, Azpeitiko Jotakie taldearen kontzertua, 2015ean.



TXISTERATIK

Era guztietako kultur diziplinak jorratu dira hamar urteotan. 2017tik, esaterako, herritar talde batekin elkarlanean Txisteratik Egun Magikoa antolatzen da. Irudian, 2018ko gala nagusia, Soreasu antzokian.



BESTE URRATS BAT: DINAMOA

Dinamoa sormen guneak 2016an eman zituen lehen pausoak. 2019tik irudiaren, gorputzaren eta hitzaren eremuak martxan dira bertan, eta, aurren, soinuaren eremuko obrak hasiko dituzte. Irudian, Dinamoa diseinatzeko parte hartze prozesuaren amaierako argazkia, 2017an.



EMOZIO ZAPARRADA

Zifra eta datuetatik haratago, bizipenak, emozioak, eta memorian ondo gordeta geldituko diren hamaika instante utzi ditu Sanagustin kultur-guneak. Irudian, Gorka Urbizu Berri Txarraren Sanagustin kultur-guneko kontzertuan, 2019ko martxoan.



MASKARAK SOINEAN

Azken urtebetean, COVID-19ak eragindako osasun larrialdiak bete-betean eragin dio kultur jarduerari; hainbat hilabetetaz kultur jarduerak etenda egon dira. Maskarak jantzita, eserita eta edukiera mugak zainduz egiten dira ekitaldiak gaur egun. Irudian, Erika Olaizolaren *Panpina* antzez-lana, 2020ko uztailan, Soreasu antzokian.



KULTURA MODU INTEGRALEAN

2021eko otsailean hitzarmena sinatu zuten Azpeitiko Udalak eta Kulturaz kooperatibak. Gaur egun, Sanagustin kultur-gunea, Soreasu antzokia eta Dinamoa sormen-gunea kudeatzen ditu Kulturazek. Ekitaldiak ez ezik, sormen eta transmisio dinamikak ere garatzen ditu, kultura modu integratuan landuz. Irudian, *Antigone metodoa* antzerki-mediazio tailerra, Dinamoa, 2021eko maiatzan. ■■■

LAI XTE ZITOZTENK TA
PREPARATZEN HASI
BERKOÑHATI!



SOKA LUZEAN



JANIRE ALKORTA

Altza(d)irua

Ondo dakizuen moduan, Cristian Lay enpresak 2013tik itxirik dagoen Corrugados Azpeitia S.L. altzairutegi eta ijezketa (laminazio) instalazioak martxan jarri nahi ditu. Gai horren inguruan, iritzi eta ikuspuntu asko partekatu ditugu herritarrok, baina pentsatu al duzue inoiz altzairuaren itzalean ezkutatzen den kimikari buruz?

Materialak hiru taldetan sailkatu ohi dira: metalak, zeramikak eta organikoak. Eta horiez gain, material nahasteak daude. Aleazioak, bi elementu kimikoz edo gehiagoz osatutako nahasteak dira, konposatu horietako bat metala izanik. Altzairua, burdinez (metala) eta karbonoz (ez metalikoa) osaturiko aleazio bat da, non karbono edukia %0,002 eta %2 artekoa izaten den pisan. Baina bi elementu horiez gain, beste aleazio elementu batzuk izan ditzake (aluminioa, kromoa, kobaltoa, nikela eta abar), altzairuaren ezaugarriak hobetzeko. Burdinak, beste metal batzuen moduan, propietate alotropikoak ditu; hau da, bere egitura atomikoa aldatzeko ahalmena dauka tenperatura igo ahala. 1.535 gradutik gora, burdina likido egoeran aurkitzen da.

Altzairuaren propietate mekanikoak definitzea oso zaila da. Jasan duen tratamendu termikoaren eta daukan karbono

portzentaiaren arabera, portaera ezberdinak izan baititzake. Tenplaketa prozesuek altzairuaren propietate mekanikoak hobetzea dute helburu, faseak tenperaturaren erabilerarekin eraldatuz. Horretarako, lehendabizi altzairua berotu egiten da (karbono edukiaren arabera, tenperatura batera edo bestera, baina gutxienez 727 gradura), eta ondoren hoztu, teknika eta denbora desberdinak erabiliz.

Ez dago esan beharrik, altzairua oso material erabilia dela hainbat sektoretan (eraikuntzan, energia berriztagarrietan edo autogintzan). Pandemia medio, altzairu ekoizleek lantegiak itxi behar izan zituzten, altzairuaren prezioak behea jo baitzuen 2020an Amerikako Estatu Batuetan (AEB). Ekonomiaren berzabaltzearekin, altzairuaren eskaria ikaragarri igo da, bere balioa hirukoiztuz gutxi gorabehera. Aditu batzuen arabera, 2021ean siderurgia sektoreak lorpen ekonomiko historikoak izatea espero da.

AEBetan altza(d)iruarekiko dagoen interesa zenbaterainokoa den jakinik, ez dago inongo dudarik datozen hilabeteetan Corrugadosen inguruko pasarte eta bizipen asko entzun beharko ditugula, baina ez dezagun ahaztu eraikin handi horren itzaletan zer eta nola ekoizten den. ■■■

BOTEPRONTOAN



FELIPE MURILLO

Eskerrik asko!

Hauxe da despedidea/ hauxe da despedidea..." Ai! Zer eguneroko diren kopla zaharrak garai ez hain berrietan. Bai lagunok. Txoko honetatik despeditzen naiz. Plazera izan da nire zilborrari begira jarri eta kontraesanak mahaigaineratuz zuekin gogoetak partekatzea.

Niagara samar ibili naiz orriotan. Gaia edozein zela ere, *ni* eta *nireei* bueltaka ondu ditut idatziak barneko uren eta lohien jauzi moduan. Ondorioen batera iritsi naizenetan ere, zuokin elkarbanatu dut, idatzitakoek zuentzat moralistatik baino niretzat terapeutikotik gehiago izan zezaten saiaturaz. Gurasotasunaz, emozioez, bankuek, pornografiak edo barne iraultzez hitz egin dizuet. Hilabete batzuk geroago, berriz, aita naiz, eta bankutik bankura nabil mailegu onenaren bila. Ai, kamarada, nola aldatzen diren gauzak! Edo ez. Ez dakit. Agian, molde berberak errepikatzen gabilta ordutik.

Ikasturte amaiera denetan bezala, datorrenari zalantzaz begiratzen diot, eta terapeutak hurrengo txanda noiz emango zain nago. Badirudi gauza batzuk aldatzea ez dela hain erraza.

Tatuaje bat egingo dut kontraesanen betierekotasuna bermatze aldera. Bitartean, zoriontsu izan edo halako zeozer! ■■■

UZTAILAREN 2^{TIK} IRAILAREN 10^{ERA}

2021 GUKA

ARGAZKI LEHIAKETA

B K erlo ✨ KH M ZH



Parte hartzeko, bidali zure datuak eta argazkia(k):

1. GUKA argazki lehiaketaren webguneko txokora datuak eta argazkia(k) **zuzenean igota**.
2. Posta elektronikoz 'lehiaketak@ukt.eus' helbidera idatzita.
3. Whatsapp bidez, **688 84 63 51** zenbakira idatzita.

SARIAK

1. EPAIMAHAIAREN SARIA: XOXOTEKO ATERPETXEAN LAU LAGUNENTZAKO EGONALDIA (GAU BAT) MANTENU-ERDIAN (AFARIA ETA GOSARIA).
2. IKUSLEEN SARIA: TALAI BERRI TXAKOLINDEGIAN BI LAGUNENTZAKO UPATEGIRA BISITA, HAMAIKETAKOA ETA PARE BAT BOTILA
3. BOTOA EMATEN DUTEN ERABILTZAILEEN ARTEAN ZOZKETA: BI LAGUNENTZAT PADDLE SURF IBILBIDEA ORIA IBAIAN



TiEN21ESNAOLA

ZATOZ
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943-08 03 55 · esnaelek@outlook.com